

## **Jordi Bañeres eta Marc Lepreterekin Elkar hizketa**

1972. urtean, Lluís Aracil-ek, Stanford Unibertsitateko irakasleak, Kataluniako historian lehenengo aldiz Soziolinguistikari buruzko ikastaro bat eman zuen. Gertakari honetan koka dezakegu gerora horrenbeste emaitza emango duen Kataluniako soziolinguistikaren sorrera. Ondoren sortzen dira, 1973an, Grup Català de Sociolingüística, 1977an, Seminari de Sociolingüística de Barcelona eta, 1980ean, Generalitateko Direcció General de Política Lingüísticaren baitan, Institut de Sociolingüística Catalana.

Gu Institut de Sociolingüístican izan gara, Jordi Bañeres eta Marc Lepreterekin i Alemany-rekin elkarizketa luze eta atsegin batean murgildurik. Hona hemen arratsalde hartan hitz egindakoa.



### Katalunian hizkuntz pasotismoa dago

**GALDERA:** Hasteko, Kataluniako hizkuntzaren egoera orokorrari buruzko azalpen labur bat egin zeniezaguke.

**ERANTZUNA:** Datu bat aipatuz hasiko naiz: Katalunian -Kataluniara mugatuko naiz eta beste Herri Kataluniarretaz ez dut ia ezer hitz egingo hain zuzen Kataluniako egoera nahiko korapilatsua bait da- 59. urtetik 75era arteko inmigrazio masiboa dela eta, 1.976ko zentsuan populazioaren %38a eta gehiago ez zen Katalunian jaioa. Honek, alde batetik, esan nahi du inmigratu egin zutenak ge-

hienbat talde gazteak zirela, mugitzeko adinean, eta beren jatorrizko herrialdeen ohitura demografikoengatik hain zuzen ere gazteago ezkontzeko joera handiagoa zutenak, eta ondorioz katalanera hitz egiten zutenek, hau da, herrialdeko kataluniarrek baino seme-alaben media altuagoa zutenak; eta guzti honek dakar berarekin askoz haur gehiago egin dutela. Honekin batera 86 urteko zentsu linguistikoaren atalean, lehendabiziko hizkuntzatat katalanera duten 3 - 4 urtetako adin-zerrendako haurrak, gehienez, ez dira

%30era iristen. Zentsuan oinarriturik lortzen den mapan ikusten da katalaneraz hitz egiten ez dutenak, zenbait herrialdetan %82 edo 83ra iristen direla; eta eskualde katalaneztatuenetan, alegia, oraino bada katalaneraz mintzatzen ez den %31a.

### **G: Eskolan sartu ez diren haurrena.**

E: Hain zuzen ere. Baina, bada beste ondorio bat: piramide sozial katalana, beste nazioetatik zetozen pertsonen %40a iritsi zen. %40 hori, jakina, bereiztua zetorren, atomizaturik zetorren eta populazio estratu baxuenetatik; ondorioz egin zuena sistema sozial kataluniar guztiari altxagarri bat jarzea izan zen. Kataluniar guztiak lanpostu altuagoak lortu zituzten, lerrodoenak ezik.

Beraz, kataluniarrak goranzko desklasatuen egoeran endakatzen direla daukagu. Esan diezadakezue Euskal Herriko egoera antzekoa dela..., baina neurri bateraino bakarrik, zuek ez zaretelako inoiz iritsi populazioaren %40a kanpoko izatera. Orain arte Kataluniako populazio osoaz mintzatzen ari gara, baina zenbait herrialdetan indize handiagoak ematen dira. Gainera, beste faktore gehigarri bat dago: katalandarrek, euskaldunetaz desberdinduz, demografi tasa, jaiokuntz tasa oso baxua dugu. Tasa hau jada pasa den mendearen bukaeratik oso baxua da.

---

**Kataluniarrak etorkinengandik bereizteko berez zeuden baino modernizatuagoak egiten ahalegintzen dira, guzti hori hizkuntzarekiko interes batekin lotzen dutelarik**

---

Honek ondorio sozial oso garbiak ditu: nik 8 seme-alaba baldin baditut, langile izanik, badakit normalena nire 8 haurrok langile izaten jarraitzea dela, heziketa handiagoa ezin bait diet eman. Honek, beraz, errealismo batera narama: ni langileriaz interesatzen naiz, nere klasetakoetaz interesatzen naiz, horizontalki interesatzen naiz. Seme bakarra edo bi dituen langile bat banaiz, ordea, badaikit inbertsio ekonomiko handiago bat egin dezakedala, nire semea langilea izan ordez karrera bat egin dezan, eta horren bidez mailaz igoko da. Denbora berean, eta inmigrazioa dela kausa, ni klasez igo eta ardura-dun bihurtzen naizenez, eta hau gehi dakion nire semeak klasez igotzeko asmo handiagoak izateari, hitz batez, guzti honek puntu bateraino eramaten gaitu non esan bait daiteke nazionalitate katalaniarra globalki desklasatu egin dela. Honek ondorio nazionalak ditu; gertakari sozialetatik hasita, ondorio nazionalak honako hauek dira:


Nazionalitatea, hain zuzen, solidaritate mugimendu bat da, horizontala, baina gertatzen da esaten ari garela jendea, hain zuzen ere, klasez igotzen dela, hots, bakoiztu, bakartu egiten dela. Eta, gainera, guzti hau testuinguru oso mugatu batean, zehatz mehatz 60 eta 70 urteetaz hitz egiten ari ginen. Hauxe da gizartearen bakartze-mekanismoen gehikuntza gordina ematen den garaia, esaterako telebistarena: atseginagoa da telebista ikustea patioko auzokideekin hitz egitera joatea baino. Adibide gisan, inkesta oso esanguratsu batean 76ean Britainia Handian, garai hartako haurretarik ia %70ak gehiago maite zuen telebista bere gurasoak baino. Eta badira gaiari buruzko datu sinesterrazgarriak, zeintzuk frogatzen bait dute mendeal Europa osoko haur gehienek den-

bora gehiago ematen dutela telebistaren aurrean eskolan baino.

Baina badira bakartzeko beste faktore batzuk, adibidez kotxea: asteburuak hirian bertan ni bezalakoez inguratutik, sozialki kontrola ezin nazaketen horietaz inguratutik pasa orde, nik lokarriak hausten ditut eta nire txaletera joaten naiz, kanpora joaten naiz, bakartzen naiz. Bakartze faktore guzti hauek zera eragiten dute: kataluniarrak, klasez igo zirenez, desklasatuak zirela, besteengandik ahalik eta gehien bereiztu nahi izango luketenak, oso nekazal izaera zuten horiengandik hain zuzen ere, oso azpiaurreatuak zirenak, amankomuntasan primitibo bat praktikatzaren zutenak. Honek zer dakar berarekin? Ba kataluniarrak etorkinengandik bereizteko berez zeuden baino modernizatuagoak egiten ahalegintzen dira, guzti hori hizkuntzarekiko interes batekin lotzen dutelarik, hizkuntza bait da etorkinengandik bereizten dituen.

**G: Aipatzen duzun hizkuntzarekiko interes horrek balio izan ote du nazionalismo kataluniarrari eragiteko eta komunitatea aipatu hizkuntzaren inguruan elkartzeko?**

E: Ez prezeski. Nazionalismoak, komatxoeren arteko "nazionalismo" honek, bederen, elkartze horizontalerako elementu bezala, solidaritate mugimendu bezala balio orde, bakartze elementu bezala balio izan zuen, gorakada sozial bat markatzeko elementu bat bezala, hain zuzen ere. Kontraesan hau ordaindu dugu eta ordaintzen ari gara. Komunitate linguistiko eta nazional bezala funtzionatzen duen gizarte baterantz jo orde, dena irudi faltsuetan emititzen duen gizarte mistifikatu bat dugu soilik.



*Jordi Bañeres*

Esate baterako, esan da pujolismoak burgeseria txikia errepresentatzen duela. Hori astakeria bat da, ergelkeria hutsa. Katalunian populazioaren %80a soldatapekoa da. Eta pujolismoari ez dio gainerako %15ak botoa ematen, %5a burgeseria altua dela eta %15a normalean burgeseria txikia dela kontsideratzen badugu. Ez, horrek ez du balio. Pujoli botua ematen diotenetako zati bat soldatapekoa da, azpikoekin konparatuz desberdinak kontsideratzen direnak hain zuzen ere, nolabait besteak baino gehiago kontsideratzen direnak.

Diodanez, hemengoa nazionalismo bakartu bat da, sasinazionalismo bat. Nik trantsizio garaiko euskal nazionalismoarekin konparatuko nuke, nahiko grafikotzat jotzen dudana adibide bat jarri. Euskal nazionalis-

## Inmigrazioa dela kausa nazionalitate katalaniarra globalki desklasatu egin da

moa abertzalea zen, goardia zibil bat taberna batetan sartzen zela ikusten zuenean bazekien zer egin behar zuen, tabernatik atera, bere espaloitik zetorrela ikusten bazuen bera bestera pasatzen zen. Euskal liburu asko zeukan bere etxean eta euskara ikastekoak ere beti, euskara ikasten ez zue-nak beti biharko uzten bazuen ere. Bertako nazionalista kataluniarra, ordea, beste tanke-ra batekoa zen, nazionalista kataluniarrak goardia zibila ikusten zuenean pausatuki eskua ematen zion, berarekin hartzen zuen txikitoa eta paseatzera joaten. Bere bereiz-garria zera zen, ostera, bere etxean liburu harrigarrietako apalak zeuzkala, literatura kataluniar guztia zeukan, klasiko guztiak etab., kultura bereizgarritzat zeukan. Beraz, nazionalismoaren ordez sasinazionalismo hau daukagu. Baina ez da kultura produktibo bat, kontsumoko kultura bat da soilik; hemen dagoen produkzio bakarra produkzio poetiko oso oparoa da, kontsumo arranditsua da Thorstein Veblen-ek terminoari ematen zion zentzuan. Sozialki bereizteko kontsumo bat, hain zuzen ere. Baina, azkenean kontsumo kultural hau, azalekoa soilik, kontsumitzai-lea, eta sustraigabea, faltsu bihurtzen da. Hortik sortu da naturaltasun osoz Bartzelona modaren eta diseinuaren hiria izan dadin. Guzti hau azaleko kultura honen ondorio da. Azkenean kultura zerbait hutsa bihurtu bait da. Kataluniako liburutegiak, esaterako, teo-riaz liburutegi nazionalak denak, Albaniako liburutegi nazionalak edo Tuniziakoak baino liburu gutxiago ditu, haiek biztanle gutxiago

izanik ere. Bai, itxurazko edo atletik kanpo-rako kultura bat dugu.

Eta era berean kulturzaletasunaren ordez hizkuntzarekiko maitasun xahua daukagu, bai, xahua da hitza. Nik, Herder edo Sapir edo Wolf bezalako autore berriagoen tradi-zioa jarraituz, beti kontsideratu dut hizkuntza oso garrantzitsua dela balore sinboliko be-zala, baina sinbolo batek beti egiazko zer-baitetara igortzen gaitu. Eta hemen hizkun-tza zutoihal bihurtu da, gero atzean legiorik ez daukan zutoihal bat, ez dago indar bat ere ez, beraz ez da zutoihal bat, mukizapi hutsa baizik.

**G: Dena dela, agian apur bat arraroak egiten zaizkigun gauza dexente badira. Alde batetik aipatzen duzu 3 urteko hau-rretarik ez dela %30era iristen lehendabi-ziko hizkuntza katalanera dutenak, eta katalaneraren ezagupen mapek, berriz, ezagupen hori %90aren iguruko dela adie-razten digute. Nola uler daitezke batera datu horiek? Bestetik, aipatzen duzun arazo kulturala...**

E: Puntu honetaz, hizkuntz erroldak berdinak dira hiru Herri Kataluniarretan, al-dagai batetan ezik: Kataluniaren kasuan 2 urte baino baino gehiagokoak aintzat hart-zen dira, 2tik 4 urte arte, Herri Valentziarrear eta Uharteetan alhora uzten diren bitartean; 5 urtetik gorakoak hartzen dituzte kontutan. Beraz, ez daukagu beste komunitateekin konparaketak ezartzerik datu ezagatik. Ni berehala konturatu nintzen eskola faktore hau zela katalaneraren ezagupen maila oso altua izan zedin ahalbideratzen zuena. Bai-na, ene buruari galdetu nion ea zer gertatzen zen eskola sisteman oraino sartu ez diren

haurrekin, zeintzuen gain, esan dezakeguenez, famili sistemak bakarrik eragina izan bait du. Orduan, adin zerrenda hori bakarrik aztertzeari eman nion denbora. Adin zerrenda honetan datu oso arraroak ateratzen zitzaizkidan -zuk zeuk esana duzu- eta errolda komentatu duten beste autore batzuek ere oso misteriotsua ikusten zuten, besteak beste Miquel Strubell (institutu honen zuzendaria, gaiari buruzko artikulua bat idatzi duena), eta Modest Reixach. Lan bateragarri batzuk burutu nituen datu hauek irakaskuntza sailaren datuekin konparatuz, haurren famili hizkuntza zein den derrigorrezko irakaskuntzara sartzen direnean. Berritatu datu bera: famili hizkuntzatat katalanera haurretatik %30ak bakarrik zuen. Geroago, korrelazio sail bat egin dut eta datu hauei sinesterazgari deriztet.

**G: Honek esan nahi du Katalunian familietarik %70ak gaztelania duela ohi-zko famili hizkuntzatat. Eta %90ak, ordea, ulertzen du.**

E: Bai, oso erraza bait da, katalanera oso erraza da gaztelanieraz hitz egiten duen batentzat.

**G: Katalaneraren erabilpenari buruzko daturik ba al duzue? Estatistikak edo ikerketak...**

---

**Kataluniakoa nazionalismo bakartu bat da, sasinazionalismo bat, kontsumoko kultura bat da soilik, azalekoa, kontsumitzailea eta sustraigabea, itxurazko edo atetik kanporako kultura bat dugu**

---

E: Ez, Euskal Herrian badira oso ondo dauden erabilpenari buruzko lanak, baina hemen ez dago antzeko ezer. Bakarrik lan bat dago hizkuntzaren erabilpenari buruz kalean zehar, baina oso murrizta da. Izan ere, horixe da arazoa, eskolatik pasatzen dira urte batzuetan, baina gero ez dira hitz egiteko gauza. Edo are larriagoa dena: katalaneraz hitz egiten duten haurren artean gaztelarera pasa behar dute konpetentzia maila altuagoa denean. Adibidez: futbolaz katalaneraz mintza litezke, baina literaturaz edo beste gauza batzuetan mintzatu behar badute gaztelaniara pasa behar dute oinarririk ez bait dute.

Datu berri bat, ekonomi zientzien fakultatean, klaseak katalaneraz ematen zituen irakasle baten azterketak katalaneraz zirela zioten, azterketak %5 batean bakarrik zeuden katalaneraz idatziak, ordea.

Dena den, honako hau ere gertatzen da: ezkontza mistoen familietan jakina da gehienbat erdarara jotzen dela, baina ez %100ean. Familian ez da gaztelanieraz bakarrik hitz egiten, portzentai batean ere katalaneraz hitz egingo litzateke. Baina gurasoek ezin dute baieztatu beren seme-alabek katalaneraz gaztelanieraz bezain ongi hitz egiten dutenik.

**G: Arestian aipatu duzun beste puntu bat katalanera sinbolo bezala erabilitezarena izan da. Baina, hala eta guztiz ere, konparatiboki, kanpotik etorrita erabilpen handiagoa ikusten da.**

E: Ez, ez, jakina. Beno, lehenengo zehaztu behar da gu nahi gabe galtzen gara eta beti Bartzelona eta zonalde metropolitanoaz hitz egiten dugula; Gironako zonal-



### **Marc Leprete i Alemany**

deetan esan bait genezake oso ongi funtzionatzen duela eskualdeko bizitzak, bizitza kultural eta lokal indartsu batekin, sare sozial trinko batekin. Hots, bertan katalanera gogor erroturik dago, eta gainera beste egoera bati dagokio, non balore sinbolikoak eguneroko errealitatean bertan erroturik dauden.

Hori ez da Bartzelonan gertatzen, hemen gauzak oso azkar aldatzen ari dira. Alde batetik, gaztelania orain gazteriaren hizkuntza dela eta bestetik duela hamar urte katalanera erdiko klaseen hizkuntza zela segurtasun osoz esaterik zegoen bitartean, orain ez dago hain argi, orain gaztelania asko sartu da sektore hauetan. Esaterako, ikasle unibertsitarien lehen hizkuntzari buruzko datuen arabera, gutxi gora behera bi komunita-

te linguistikoak, kataluniarrak eta gaztelauak, parean daudela esan daiteke. Beraz, ikasle unibertsitariak erdaldun ateratzen ari badira, eskenifikazio linguistikoa jada ez da duela 10 urtetako berbera.

Nolabait esateko aspektu sozialagoetaz hitz egin dugu, baina oso garrantzizkoa den hizkuntzaren beste dimentsio batetaz ere hitz egin behar da, instituzional eta politikoaz, alegia. Azal daitezkeen faktore batzuk direla kausa, hemen katalanera Administrazio Autonomikoaren eta Administrazio Lokalen hizkuntza ezezik, sistema politiko-administrari berarena ere bihurtu da. Hau da, hemen Generalitatean, parlamentuan, mundu oro katalaneraz mintzatzen da. Baita PPkoak ere mintzatzen dira katalaneraz eta beren propaganda politikoaren zatirik handiena katalaneraz egiten dute.

**G: Hau faktore positibo bat dela ulertzen dut. Botere politikoak hizkuntza bat erabiltzeak balore soziala ematen dio aipatu hizkuntzari.**

E: Bai, gertatzen dena gauza bitxia da. Hemen, egunen batean Pujol asanbladari gaztelaraz hitz egiten hasiko balitzaio, lurrikara bat sortuko litzateke, eztanda antzeko bat.

Zera gertatzen da: duela hamarkada batzuk populazio kataluniar guztia elebiduna zen gaztelaniaz eta orain esan daiteke gazte guztiak elebidunak direla katalaneraz, zehaztasun handi edo txikiagoz. Bada behin eta berriz ematen den mito antzeko bat, zera, Katalunian gatazka linguistiko bat dagoela, hain zuzen dagoena guztiz aurkakoa denean: pasotismo linguistiko bat, axolakabe-

keria, eta adore borrokazale duenik aurkitze-ko..., ia zerorrek izan behar duzu!

Penaz diot, mintzen nauelako, baina hemen dagoena, hain zuzen ere, continuum linguistiko bat da, non batzuk kataluniarrak-edo eta besteak gaztelauak-edo diren, eta continuum horretan azkenean sogile elebidunaren paradoxara heltzen da: zeu elebiduna bazara, gizarte elebidun batean zaudelarik, batengana jotzen baduzu A hizkuntza batez pentsa dezakezu mundu guztia A hizkuntzaduna dela, baina, gero berberengana jotzen baduzu B hizkuntzaz B hizkuntzadunak direla pentsa dezakezu.

Gazteriaren kasuan bezalaxe, non populazio gaztearen %90a elebidun bait da, eta dena oso zirriborrotsua den kasu batera iristen da, profilak eta inguruneak mugagaitzak dira. Eta hau bi komunitate oso ongi bereiztuak daudeneko egoerarekin konparatuz guztiz aurkakoa da, orduntxe gatazka sortzen bait da baina hemengo kasuan ez.

**G: Aurreko puntura itzuliz: bi komunitateren existentzia aipatzen zenuten, kanpotik etorri den komunitatea eta nolabait mailaz igo den bertako komunitatea, bere burua bereizten ahalegindu dena, hizkuntza faktore bereizgarri bezala erabili duena. Horrek bereizturiko bi komunitate daudela suposa edo adieraz lezake.**

**E:** Gizarte ireki batetan gaude, hau mugimendu sozialen komunitate bat da, eta goranzko eta beheranzko mugimendu sozial oso nabarmena dago. 60 urteetan zu kaletik joanda etorkinen zati handi bat bareiz zenezakeen arren, orain ez da horrela. Inmigratzioa 75. urteaz geroztik gelditu egin da, eta

## Haurretatik % 30ak bakarrik dauka katalanera famili hizkuntzatzat

azken 16-17 urte hauetan jada etorkinen seme-alabak sozialki gorantza egin dute eta bertako seme-alabetarik zati handi bat jaitsi egin da. Argi eta garbi koktel bat egon da, eta lehen aipatzen genuen estratifikazio linguistikoari klase sozialetako koktela erantsita, ondorio bezala esan dezakegu maila guztietan ziurtasuna falta zaigula. Gazte bati ezin bait zaio galdetu: zuk zer taldekotzat jotzen duzu zure burua? Iruzur egin diezazuke. Adierazle gehiago izan behar dituzu, askoz zehatzago izan. Eta egoera honetan, soziolinguistika kataluniarrak antzinako klitxez bizi da, 10 urte lehenago oso baliogarriak zirenak, baina orain soziolinguistika kataluniarraren metodologia guzti hauek oso zaharkituak daude.

**G: Instituzioek aplikatzen duten politika linguistikoa elebitasun politika da. Ba al daude katalaneraren erabilpen elebkarreko planteamenduak? Bere bidegarritasuna ikertzen al da?**

**E:** Nik uste dut ezetz, ez dut inon ikusi, behintzat. Aurreko zuzendari orokorraren garaietatik -elebitasun argi eta garbiaren defendatzailerik handiena- egoera berdinean jarraitzen dugula uste dut.

**G: Zer zentzu izan dezake erabateko elebitasunak? Katalaneraren ezagupen maila hain altuekin, ez luke zentzurik izango erabilpen elebkar baterantz saltoa emateak?**



E: Faktore desberdinak daude. Alde batetik, egia da sistema sozialean ez dela batere argi geratzen non dauden kataluniarak eta non gaztelauak. Esan daiteke klase baxuenetan gaztelania nagusi dela eta ertainetan katalanera, baina bakarrik hori, nagusi dela. Lehen sistema politikoaz hitz egin dugu. Baina, sektore politiko guzti hori gainerako sistema sozialetik bereizturiko sektore bat bihurtzen ari da. Nahiz eta noizean behin katalaneztatze ezohizko erretze fenomenoekin aurkitu, eta horregatik ez da itxaropenik galtzen, esan beharra dago dena ez dagoela jada erabakia, hau da, karta guztiak ez daudela dagoeneko mahai gainean, mundu guztiak karta onak dituela oraindik esku artean.

Jende asko dago jarrera honekin: nik ez dut sekula katalanera ikasiko eta ez zait interesatzen ere, baina ongi ulertzen dut; eta nire seme-alabek katalanera menpera lezaten gustatuko litzaidake, honela Generalitatean lan egitera sar litezkeelako. Eta hori positiboa delakoan nago.

Hemen bi maila daude: maila bat ohar-men sozialarena da, eta esan genezake hau gizartearen ezagutza objektiboa baino atzeratuago dagoela beti. Esate baterako, gazteei galdetzen zaienean katalanerak beraien ustez aurrera egiten duen ala ez, erantzuna

---

**Hau bi komunitate oso ongi bereiztuak daudeneko egoerarekin konparatuz guztiz aurkakoa da, orduntxe gatazka sortzen bait da baina hemengo kasuan ez**

---

“bai, gero eta aurreratuago dago” da, eta garbi dago, ordea, gazte horiek gero eta erdaldunagoak direla eta beraien artean gaztelaniaz hitz egiten dutela. Ez dago erabilpenari buruzko ikerketarik, baina behaketa guztiak bat datoz, esango dudan salbuespena ezik, gazteak gaztelaniaz atatu daudelako eritziarekin. Salbuespen bakarra, Francesc Vallverdú jauna da, soziolinguista baikor ofiziala dena, zeinak gazte guztiak katalanera mintzatzen direla bait dio. Inork ez daki zein gazterekin mintzatzen den.

Halere, gazteek gehienbat gaztelaniaz hitz egiten badute ere, katalanera ederi hitz egiten ahalbideratzen dien background bat daukate. Izan ere, kasu kataluniarra pisika bat nazkagarria da, baietz esaten duzula eta ezetz da, ezetz esan eta baietz; guztiak gaztelaniaz hitz egiten dute, baina beraiekin katalanera hitz egiten hasten bazara, agian, katalanera erantzuten dizute, zurekin katalanera hitz egin eta gero gaztelaniaz hitz egiten dute.

Soziolinguistika kataluniarra zorrotzago egin behar dela esango nuke. Orain arte borontate zientifiko onaren diskurtsoaz mugitu da, filologia fakultatetik eginiko soziologia izan da, eta horrela doakigu. *Treballs de sociolingüística* aldizkaria ikusiz gero hemen sakontasuna falta dela nabari da.

**G: Hala eta guztiz ere, katalanerak sektorialki aurrera egiten duela esan daiteke: administraritzan, komunikabideetan, irakaskuntzan, zerbitzuetan,...**

E: Bai eta ez, eta ez eta bai. Sektore batzuetan bai horixe, edo sektore baten barneko azpisektoreetan..., nahiko konplexua

da. Sektore sozioekonomikoa asko aurreratu duen sektorea da, baina orain maila oso baxuetan dagoena. Orik 100erako eskala batean 10era iristen bazara, 10ez biderkatu duzu, baina 10era bakarrik iritsi zara. Telebista mundua pribatuak sartu arte nahiko ongi zegoen, TV3 eta 33 kanala zeuden, eguerdiko 12tik gaueko 12ak arte dena katalaneraz emititzen dutenak, telebista espainiarraren bigarren kanalak dituenak baino entzulego indize altuagoekin, eta ordu batzuetan lehen kanalarenak baino altuagoak ere, eta ez bakarrik futbol partiduak daude-nean. Baina orain pribatuen arazoarekin ez dakit zer gertatuko den, bertan izango duten eraginaren baitan dago, baina bi katea gehiago dira, Canal + ez bait dut kontutan hartzen.

**G: Katalunia bisitatu duen Euskal Herriko jendearen artean oso zabaldua dagoela katalanera kalean entzuten delako eritzia; Bartzelonan nabaritu egiten da, eta imaginatzen dut Bartzelona zonalderik problematikoenetarikoa bat izango dela, barnekaldera joanez gero hobetu egingo da.**

E: Bai, bada ECO enpresak oso ongi eginiko lan bat katalanerari buruz dendaritzan eta karteletan. Komertzio batetan idatziriko proiektzioak salmentari ez dio inolako kalterik eta hori faktore positibo bat da. Baina, bi gauzarekin oso loturik dago: bata, hizkuntz kontua, bi hizkuntzen arteko antza, eta bigarrena, gatazkarik ez egotea. Jarraikortasun bat dago: beste hizkuntzaz hitz egin beharra badago, hitz egin egiten da.

**G: Maila honetan, oro har, katalaneraren presentzia gehitu egin da.**

## **Soziolinguistika kataluniarraren metodologia guztiak oso zaharkitua daude**

E: Bai, dendetan gehitu egin da. Hala eta guztiz ere beste faktore gehigarri konplexu batekin aurkitzen gara: integrazio europearra. 85. urteaz geroztik mundu guztia 93 urteari begira dago. Hizkuntza atzerri-tarren irakaskuntzak gorakada izugarria izan du, komunitateko hizkuntzen eskakizunak direla kausa. Arazoa gehienbat erabilpena da, asko aurreratu da edo nabarmenki ia sektore guztietan, baina, oraino erabilpena konpontzeko dago: inoiz ez da entzun kalean gaztelaniaz orain baino gehiago hitz egiten. Inpresio bat da, baina nire lankide guztiak, Vallverdú ezik, gutxi gora behera mundu guztia bat dator horrekin. Mundu guztiak gaztelaniaz hitz egiten du, gazteek batez ere, eta oso gaizki gainera.

**G: Lehen, gatazka linguistikorik ez dagoela aipatu duzu.**

E: Gatazka linguistikorik bada Herri Valentziarrean. (Bada liburu hobezin bat Vincent Bello-rena, 3 i 4 argitaletxea). Herri Valentziarrean gatazka linguistikorik ez dagoela dioenak gezurra dio. Baina hemen ez dago. Gatazka linguistikoko ekinaldiak egon ziren 76 urtetik 82ra, gutxitzen joan zirenak. 81a 2.300 intelektualetan urtea izan zen.

**G: Eta Crida sortu zenekoa...**

E: Bai, 2.300 "intelektualek" sinatzen dute diskriminaturik zeudela. Intelektualak

baino denak institutuko irakasleak edo maisuak ziren. Ihardespen gisa Crida sortu zen eta orduan bazen gatazka linguistiko faktorerik, baina gero ia ezer ere ez. Gogoratu beharra dago hemen bipartidismo batean bizi garela, eta jakina, inor ez da ausartzen hizkuntza batekin edo bestearekin maiteminduarena egiten, gehiengoa eramaten duenak portzentai oso txikiengatik eramaten bait du, beraz, inor ezin da ausartu. Sistema politikoak neutralizatzen du gatazka linguistikoa. Populazioak hemen kataluniarrak eta gaztelauak ia parean daudelako estereotipoarekin jarraitzen du, beraz, inor ez da ausartzen ere "nire gudalostea aterako dut" esaten. Hau kutxa txinatarren eredu bat da: etorkinen ustez komunitate kataluniarraren barnean daude, baina era berean komunitate espaniarraren barnean. Mundu guztia ari da etengabeko trantsizio batean, nolabaiteko malgutasunez jokatzeko. Gatazka elementuak daudela? Beno, bai. Gauza bat da edozein erlazioren perspektiba gatazkatsua, ezkongai bikote batek aspektu gatazkatsuak dauzka, baina, erlazio hori gatazkatsutzat hartzeari gehiegizkoa deritzot.

**G: Honek esan nahi du katalaneraren aurkako jarrera antolaturik ez dagoela?**

E: Bai, baina maila folklorikoan. Lau lagun?

**G: Nola dago orain berreskurapen linguistikoaren aldeko mugimendu soziala ala hizkuntzagatiko burruka? Historikoki Crida izan da garrantzitsuen...**

E: Gogoratu beharra dago Cridak garrantzi handia izan zuela. Baina, erakundeen erakundea izan zen, hau da, mekanismo oso

---

## **Garbi dago gazteak gero eta erdaldunagoak direla eta beraien artean gaztelaniaz hitz egiten dutela**

---

sui generis: 1.100 erakunde gutxi gora behera eta horietariko bat Bartzelona Futbol Kluba zen, dakizuenez futbol klub bat baino gehiago dena; Barçatik Pyme horiek zeuden bankariengandik pasatuz.

Bulego antzeko bat antolatuta zuten, lehendik zeuden erakunde batzuekin harremanetan sartzen zena. Hain zuzen 2.300 intelektualen manifestu horren neutralizazioaren alde elkar zitezen, baina, 83 eta 84 urteetan jada arazoak izan ziren, zulo ekonomiko oso gogorra,... Hortik aurrera gero eta okerrago joan zaie.

Geroagoko bilakaera batean Crida erakunde bihurtu da, hizkuntzaren aldeko ekintzak estaliz joan ziren, horien ordeztantzi sasiindependentista zuten ekintza politikoak eginez.

**G: Eta Cridaz gain, ez al dago beste erakunderik?**

E: "Grups de defensa de la llengua" baina desagertu egin da, besterik gabe. Orain, nonbait, Esquerra Republicana mugimendu sozial gisako bat, edo frontea,... edo nahi bezala deitu, katalaneraren aldeko masa mugimenduren bat sortzekotan dabil.

Jabetu behar gara prozesua zeharo aldearantz delat: aurreko urteetan normalizazio projekturik gehienak edo mamitsuenak be-

hetik zetozen, auzo elkarteak, talde sozialak, elkarteak,... eta orain alderantzizkoa da. Goitik datoz, sistema politikotik datoz.

**G: Burutzen den lana instituzionala da bakarrik?**

E: Bai, 180<sup>o</sup>tako iraulketa bat eman delakoan nago.

**G: Eta hori, nolabait, arriskutsua al da?**

E: Hain zuzen ere, horrek abantailak ditu errekurso ekonomiko asko dituelako, baina, era berean gezurrezko zerbait bezala da, zerbait gainegiturala, edozein unetan alda daitekeena.

**G: Hala eta guztiz ere, ezin ditugu mugimendu sozialak eskusiboki funtzio errebeindikatzaile batez ulertu, katalanera ez dagoen tokietan bere presentzia errebeindikatuko dutenak. Beste funtzio batzuk ere badituela pentsatzen dut. Esaterako: motibazio lanak gertakari horren aurrean, hau da, klase politikoak katalanera jasoa duela, baina gero kale mailan, ordea, ez dela erabiltzen. Azken finean hizkuntza landuko duena gizartea da: gizarteak berak ez badu esparru desberdinetan lan guzti horietan parte hartzen, besteren eskutan geratzen da, nirea ez den zerbait nigandik at gera daiteke. Ezin al da hori gertatu? Bestalde, zuek sektore asko eta askotan ia arazorik gabe katalanera eskusiboki funtzionatzeaz zaudentela iruditzen zait, baina instituzioetatik politika elebidun bat bultzatzen da. Uste dut urrats hori eman beharra dagoela, elebitasunetik elebakartasunera pasa-**

**tzea; posible den esparru horietan eman beharko litzateke erabateko normalizazio hori nahi badugu. Nork emango du urrats hori? Zeinek buru dezake? Mugimendu sozial indartsu bat balego burutu ahal izango lukeen lan eremu izugarria dagoela iruditzen zait.**

E: Bai, baina mugimendu sozial hori ez dago ez katalanerarako ez hori bezain beharrezkoak edo beharrezkoagoak diren beste ihardueretarako ere. Gobernuak nazioaren alde gauza asko egiten ari dela esaten duen bitartean, oso osorik japoniarrei saldu die, eta triskantza ekologiko sinestezina dago, etab. Eta guzti honi erantzuteko mugimendurik ez dago. Zuk esaten duzuna hizkuntz politikaren zuzendariek ere esaten dute, oso ongi letorkiekela presio bat egotea; baina ez dago.

Generalitat-a katalanera normalizatzeko egiten ari denarekin kontsentsu nahiko zabalago dago: presarik gabe baina geldiunerik gabe, batez ere, arazorik egoteke. Jakina, instituzioek sinestu egiten dute eta gainera behetik inolako presiorik ez badago erritmoa jarraituz zoaz.

Bestalde, instituzioak katalaneztatzeko planteiatzen zenuen posibilitateaz: bai eta ez. Gauza bat da katalanera hitz egitea eta bestea idaztea, hizkuntz eta kultur erizpidea oso garrantzitsua da. Nik esango nuke gazteentzako garaiak idatziz gaztelania katala-

---

**Inoiz ez da entzun kalean gaztelaniaz orain baino gehiago hitz egiten**

---

## Katalunian sistema politikoak neutralizatzen du gatazka linguistikoa

nera baino hobeto menperatzen dutela. Gainera, zentsuaren arabera katalaneraz ongi idazten duen jendearen %31-32ko portzentaia horietan ez dut sinesten.

**G: Soziolinguistika Institutuari ekingo diogu. Zer da institutua? Non kokatzen da?**

E: Puntu honetaz aitortu beharra daukat perspektiba instituzional batetik hitz egiten dudala, ez dut bihotz irekiaz hitz egiten begi bistako arrazoiengatik. Institutua administratza kataluniarraren baitan, monografikoki ikerketa zuzpertzera eta zabaltzera, eta azpiegiturara emaniko erakundea dela. Gure baliapideak urriak dira, baina, administratza guztiarekin konparatuz, borontaterik onenak ematen digu adorea eta lan kreatibo bat daukagun erakunde bakarrenetako bat garen, gure zama administratia eta burokratikoak izan arren, eta giza sormenaren ikuspuntutik alde pozgarri bat dagoenez, bada, gogoz egiten dugu lan eta konparatiboki asko sortzen dugu. Nik esango nuke gure helburua, hain zuzen, kontseilatzea eta norabidea ematea dela. Gai soziolinguistikoei buruzko liburutegirik zabalena daukagu. Gu-retzat gai nuklearretarik egokienetako bat disziplinen arteko ikasketena da, hau da, ekonomiaz dakien bat eta filologiaz dakien norbait erlazioan jartzea, hain zuzen, bide erdiko ikerketa bat egin dezaten, baita ikerketa konparatzaileak egitea ere. Euskal egoera kataluniarrarekin konparatuko duten

ikerketek oso harrera ona izango dute. Beste egoerak ezagutu behar dira, konparatu eta kontrastatu ahal izateko eta hortik aurrera piska bat argiago ikusi.

**G: Zeintzuk dira zuen lanaren lerro nagusiak? Oker ez banago orain Normalizazio Plan Nazionalarekin ari zarete.**

E: Bai, planak hiru esparru zituen, lehena katalaneraren egoeraren azterketa nahiko zabala zen sektore desberdinetan. Gero bigarren esparru bat, disziplina desberdinetako hamar espezialistei beraiek katalanaren egoera nola ikusten zuten beren disziplinaren ekipaia teorikotik eskatzean zetzana, eta honela beraiek zeukaten instrumentuetatik katalaneraren aldeko aldaketak nola azkar edo geldiaraz zitezkeen ikusi. Honako espezialista hauek zeuden: linguista bat, soziolinguista bat, ekonomilari bat, antropologo bat, geografilaria bat, politiko bat, zientzi juridikoetako bat.... Gero hirugarren zatia nazio edo herri desberdinen planifikazioa edo politika linguistikoen esperientzia konparatzaileak ziren (bertan zuzen zeuk hartu duzu parte). Azken hiru urteetako lana. Gure eginkizuna ez da errealitatea aldatzea, aurrera jo behar dutenek ondorioz jo dezaten aukera ematea baizik.

**G: Plan honek ez al ditu gerorako ekinbideak jasotzen?**

E: Bai, bigarren atal bat dago, non administratza kataluniarraren jokaeraz iradokizun batzuk egiten diren.

**G: Iradokizun mailara mugatzen bada Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzaren ardurak izango litzateke adieraztea...?**

E: ...iradokizunak adieraztea Kontseilu Exekutiboak jaso ditzan, Generalitateko Gobernuak, alegia. Arazoa oinarrikoa da, Hizkuntz Politikaren Zuzendaritza Nagusiak ez du beste sailetan eragiterik. Kulturaren menpe dago.

**G: Hots, plan hau ez dagoela modu exekutiboaz jotzeko pentsatua, hainbat urtetarako lehenasunezko helburuak markatuz,...**

E: Ez, modu hain zehatzez ez. Guk hemen neurritasun handiz, eta ezker esku handiz, eta ahultasunez iradoki egiten dugu... Hori besterik ez. Borontate politikoaren kontua da.

**G: Plana administraritzara mugatzen al da?**

E: Esan dezagun perspektiba administrazionista dela, hots, zer egin daitekeen administraritzatik administraritza berak gizar-tean jokatzeko. Adibidez: Generalitat-i produktuak saltzen dizkioten enpresek katalaneztatze konpromezua ez badute ez zaie erosten, hori nahiko nabarmena da.

Baina, kontuan izan: azken ardura legegileena da, Parlamentuarena. Quebec-en Parlamentuak Batzorde Linguistikoa bat dago, eta urtero txosten hobezin batzuk egiten ditu,

---

**Aurreko urteetan normalizazio proiekturik gehienak behetik zetozen eta orain alderantzizkoa da: sistema politikotik datoz**

---



---

## **Hizkuntz politikaren zuzendariek ere esaten dute, oso ongi letorkieela presio bat egotea, baina ez dago**

---

informazio oso kunplutua dutenak. Katalanaren kasuan 83. urteko normalizazio linguistikorako legeak mapa soziolinguistikoa batzuk egin behar zirela aurrikusten zuen. 83 urtean esan zen segimendu sistematiko eta aldizkako bat egin beharra zegoela, baina Parlamentuan Batzorde Linguistikorik ez dago; Kultura Batzorde bat dago.

Batzorde horrek hizkuntzaren alde zerbait egiten du, baina hizkuntza bigarren mailako gaia da. Mapa linguistikoa horiek ez dira inoiz burutu, eta dagoeneko 91 urtean gaude. Zeure buruari galdetzen diozu ea zer daturekin lan egiten duen Kataluniako Parlamentuak. Beraiek dira politika egiteko arduradunak, eta gu beraiei datuak ahalik eta ederren zerbituak emateko arduradunak.

**G: Egiten dituzuen lanen artean, ba al duzue argitalpenik?**

E: Aldizkako argitalpen bezala *Noves SL* daukagu. Hemendik aurrera, seguruen, hiru hilabetetan behin agertuko da. Gehienbat gure artean eta gai hauetan diharduen komunitate zientifikoaren artean, ahalik eta informazio gehien azaltzeko ahalegin bat da.

Jendearen ikerketak jasotzen ditugu, aztertzen ditugu eta kalitate mailarik eta nolabaiteko interesik baduela uste badugu argitaratzeaz arduratzen gara. Anplifikadore be-

zala balio dugu, informazioa jasotzen dugu eta zabaltzen saiatzen gara, ahalik eta jende gehienera irits dadin, eta batez ere, informazio honen bidez jendeari eragiteko, eta erreferentzi puntu izateko. Ahalik eta lan gehien taldeka egitea nahi genuke. Funtsean hori izan zen soziolinguistek iragan abenduan lehenengoz egin izan genuen Trobadaren lehen helburua, bertara soziolinguista kataluniarretarik %50a joan zelarik. Urte honetan berriro bilduko gara eta iraila edo urria inguruan bigarren topaketa egingo dugu: kontu orokorrak baino gai enpirikoagoak eta egiten ari den lanak aztertuko dira.

**G: Euskal Herrian oso gutxi lantzen ari da sektore sozio-laborala. Funtsean administraritzan, irakaskuntzan, eta komunikabideetan zertxobait egiten da. Katalunian ere antzera zabiltzatelakoan nago...**

E: Mundu sozio-ekonomikoa lehentasuna duen sail bat da, baina eragin askorik ez da ikusi. Esaterako, IBMek hizkuntz politika gauzatzeko Quebec-en 40 pertsona dituen bitartean, hemen, ordea -eta nik enpresa horretan 14 urtez lan egin dudalako diot-, bai, bada zerbait sinbolikoa, IBM-k Generalitatearekin lan egin du sistema informaztizatu batean katalanerazko hiztegi bat sortzeko, edo antzeko zerbait, baina gehiagorik ez. Iaz normalizaio legea berrikusi behar zela es-

---

**Anplifikadore bezala balio dugu, informazioa jasotzen dugu eta zabaltzen saiatzen gara, ahalik eta jende gehienera irits dadin**

---

aten zuten ahots batzuk altxatu ziren, sektore sozio-ekonomikoari gogorrako ekin behar zitzaiola esanez, baina erbestean aldarrikatzen jarraitzen dute.

**G: Ba al da Generalitat-ek sektore honi buruz buruturiko lanen bat? Esperientziak?**

E: Bai, lan batzuk badira, bere egoerari buruzko ikerketaren bat. Esperientzia batzuk badira udal zerbitzuetan. Ofizialki, Generalitat-ek enpresaren bat kontratatuzeko, enpresa horrek zer nolabait katalaneztatzera konpremetatu behar du. Hori paperean badago, baina ez da betetzen. Hori urte t'erdiko araua da. Horretaz gain bada beste gauza bat: udal zerbitzuetan jende oso aktiboa dago, enpresak bisitatzen dihardutenak, eta badira oso katalaneztatuak dauden enpresak... Baina ekimen oso puntualak dira, eta beti dinamismoaren borontate onaren menpe.

**G: Arlo honetan legeak egiteko asmorik ba al dago?**

E: Top Secret antzeko bat da. Duela urte bat edo, Zuzendari Nagusiaren artikulua sail bat egon zen, eta Puig Salellas erresumako jurista nagusiarenak ere bai. Gudarik garrantzitsuena mundu sozioekonomiko honetan emango zela esaten zuten. Gauza mugituko zela ematen zuen. Honek hilabete bat iraun zuen eta orain ez dakit azpitik zerbait egiten ari diren. Ihes egiten digun zerbait bada hor.

**G: Azpimarratu nahi duzuen beste zerbait ba al duzue?**

---

**Olinpiadetan katalanaren  
presentzia gaztelaniarena  
bezain sinbolikoa izango da**

---

E: Bai, Olinpiadena. Oraingoz salgai dauden sarreretan gauzak katalaneraz ipin-

tzen dira eta badirudi presentzia gehiago edo gutxiago izango duela errotulu eta iragarki ofizialen mailan. Hala eta guztiz ere, sinbolikoa izango da. Bai, gaztelania bezain sinbolikoa. Lan egiteko bi hizkuntza serio egongo dira: ingelesa eta frantsesa, eta gero maila berean gaztelania eta katalanera.

***J. Inazio Marko Juanikorena  
EKBko Idazkari Orokorra***

*Itzultzailea: Jokin Kabeio*